

## Interpretazio Zentroa

Lurpeko munduan barneratu aurretik, bisitariak kobekin trebatzeko aukera du Arrikruz Interpretazio Zentroan. Zentro horrek, hainbat argazki eta informazio-paneletako erakusketa iraukor bat du, Arrikruz nola eratu zen azalduz; horietan agertzen dira, halaber, Oñatiko espeleologiaren historia, paleontologia, kobako fauna, kareharriaren eraketa eta bilakaera edota sistema karstikoa eratzten duten eta elkarrekin loturik dauden 15 kilometroko galeriak. Lehoi baten eta haitzuloko hartz baten burezurrek osatzen dute erakusketa.

**Bisita gidatuak Interpretazio Zentrora:**  
Asteartetik igandera (astelehenetan itxita dago, zubietan izan ezik).  
Goizetan: 10:30ean (gaztelaniaz) / Arratsaldetan: 15:30ean (euskaraz).

### ORDUTEGIA

ASTEARTETIK IGANDERA (astelehenetan itxita dago, jaiegunetan izan ezik)

Hilabetea	Goizean	Arratsaldean
Martxoa - Maiatza eta Urria	10:00-14:00	15:00-18:00
Ekaina - Iraila	10:00-14:00	15:00-19:00
Azaroa - Otsaila	10:00-14:00	15:00-17:00

Espeleologia abenturak dituzten bisitaldiak ("Arrikruz errai-erraietatik"), bisita programatuak eta ados daitezkeen bisitak taldeentzat.

- Erreserba alde aurretik egitea gomendatzen da.
- Azken bisitaldia kobak itxi baino orubete lehenago.
- Zubietan, Aste Santuan eta jaiegunetan, ekainetik irailera bitarteko ordutegian dago irekita. Ordubeteko bisita gidatuak, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez eta katalanez.

943 08 20 00 / arrikruz@oinati.org / www.oinati.eu/turismo

# ARRIKRUTZ

Oñatiko Kobak


## Bidaia seiqarren kontinentera

Arrikruz koba Gesaltza-Arrikruz-Jaturabe multzo karstikoaren barruan dago, Aizkorriko mendigunearen azpian; barrunbe itzel eta korapilatsua da eta Gipuzkoako sistema zabalenetako bat, 6 solairu gainjarriratan 15 kilometroko lurpeko galeriak dituena. Behe Kretazikoko kareharrien gainean (duela 120-110 milioi urte eratutakoan) garatu zen.

### Eskulturak, tantaz tanta

Bisitariak 500 metroko luzera eta 55 metroko desnibela dituen 53 galeriaren bitartez ezagutuko du kobaren barnealdea. Egokitutako ibilbidean ordubeteko bisitaldi gidatu zirraragarria eginez, mendez mende urak harkaitzetan zizelatu dituen irudi harrigarriak eta galerietako sabaietan zintzilik dauden egundoko estalaktitak mirets daitezke.

Arrikruz koba berezia da bertako aurkikuntza arkeologiko eta paleontologikoengatik ere; besteak beste, haitzuloetako lehoi baten eskeleto osoa (mota horretako lehena Penintsulan eta hirugarrena Europan), panteren eskeleto zatiak eta burezurrak eta berebiziko hartz-aztarnategi bat aurkitu dira. Bisita gidatuak barrunbe horietako beste altxor bat ezagutzeko aukera ere ematen du: lurpeko ibaia (Aldaola) eta Sandaili kobaren inguruko mitologia, alegia.



## Mitologia eta elezaharrak

Duela zenbait mendetik, Oñatiko, Deba Garaiko eta Arabako bizilagunak Sandaili kobara joan ohi dira erromes, beren soroetarako euri bila. Emakume antzuak ere Sandailiko uretan bainatzen ziren emankortasuna bereganatu nahirik, era horretan, antzina sortutako eta segur aski kristautasunaren aurreko sinesmenekin lotutako ohiturak betez.

# Aztarnategi paleontologiko izugarria

Arrikutzen eta inguruko beste koba batzuetan aurkitutako hondarrak, milaka urtetan gertatutako klima- eta paisaia-aldaketen adierazgarri baliotsuak dira.


Koba horietan hondoratu ziren azken glaziazio aroan bizi izan ziren eta gaur egun desagerturik dauden animalia askoren aztarnak (haitzuloko lehoia, haitzuloko hartza, erinozero iletua, orein erraldoia, haitzuloko hiena, uroa,...), baita garai hartan hemen bizi ziren gaur egungo animalienak ere (azeri arktiarra, elur-oreina, jatun arktiarra, bisontea,...).

Azkenengo glaziazio aroan (duela 100.000-10.000 urte), Europa gehiena izotzez estalirik zegoen; garai hartan, Euskal Herriko paisaia gaur egun ipar hemisferioko goi-latitudeetan dagoenaren antzekoa zen; glaziarrekin batera, taiga (edo zuhaitz koniferoen basoa) eta tundra zabalak nagusi ziren paisaian.

Giro hotz hartan, haitzuloko lehoiek eta hartzek Arrikutz bezalako kobetan babesten ziren. Haietako batzuk hibernazio garaian hiltzen ziren eta haien eskeletoak oso-oso agertzen dira, estalagmita-sedimentuz edo -geruzaz estalirik askotan.

Belarjaleak eta bestelako animaliak ez ziren kobetan babesten, ez zuten hibernatzen, baina, beharbada, haragijaleek harrapatu eta kobetan sartuko zituzten haien gozpuzkinak; edo, kanpoan hil ondoren, izotza urtu ondorengo uholdeek kobetan sartuko zituzten haien hondakinak. Horrela, bada, animalia horien zatiak, normalean, hezurak, hortzak, adar puskak,... izaten dira. Leizean behera eroritako animalien hondarrak jatera sartzen ziren sarraskijaleen aztarnak edo koprolitoak ere (gorozki fosilduak) aurkitzen dira.

Goi-pleistozenoko paisaia (duela 125.000-10.000 urte)



## Izadia eta monumentuak nagusi diren ingurunean Oñati, Arantzazu, Aizkorri

Arrikutz koba, Gipuzkoako tontorrik garaienak dituen Aizkorri-Aratz parke naturalaren erdi-erdian dago. Mendi horietan sortzen dira Gipuzkoako orografia erazten duten ibaiak (Oria, Urola eta Deba) eta hantxe topatzen ditugu historiaurreko (monumentu megalitikoak), Erdi Aroko eta abangoardia artistikoen lekukoak ere. Abangoardia artistiko horiek direla-eta, Arantzazuko santutegia arte alorreko benetako laborategi bat izan zen eta hantxe elkartu ziren Oteiza, Chillida, Basterretxea edo Sainz de Oiza bezalako maila handiko talentuak. Era berean, Oñati Gipuzkoako herri nagusietako bat da monumentuei dagokienez eta Errenazimendu garaiko eraikuntzen eredu bikainak ditu.




### Haitzuloko Lehoia (*Panthera Leo Spelaea*)

Eurasian bizi izan zen duela 300.000 eta 10.000 urte bitartean eta inoiz izan den felido handienetako bat zen. Bere garaiko belarjale handiak (zaldiak, orein erraldoiak, bisontea, elur-oreinak...) izaten ziren lehoi horien ohiko harrapakinak. Jaturabe inguruko galeria batean aurkitutako eskeleto osoak 35.000 urte inguruko datazioa du.



### Haitzuloko hartza (*Ursus Spelaeus*)

Duela 10.000 urte inguru desagertu baziren ere, haitzuloko hartzak ugari izaten ziren eremu hauetan, hibernatzeko erabiltzen zituzten kobetan aurkitutako eskeleto osoek erakusten dutenez. Larraioz galerian, esaterako, 130.000 urte inguru dituzten hartz arren hondakin ugari aurkitu dira. 1.000 kiloko pisua izaten zuten eta zutiturik 3 metro baino gehiagoko garaiera.



Arrikutzen eta inguruko kobetan honako animalia hauen hondakinak aurkitu dira

